

## POTASIO XABOIAREN ERABILERA BARATZEAN



Pixabay

Potasio xaboa urez, landare olio eta potasa kaustikoz osatutako produktua da. Etxea garbitzeko erabiltzen da, baina prebentzio-intsektizida gisa ere erabil daiteke baratzezaintza ekologikoan, batez ere, landare zorriak, kotxinilak, tripsak, euli zuria eta gorputz biguneko beste intsektu txiki batzuen aurka.

Produktu hau behar bezala erabiltzen bada, ez ditu baratzeetako landareak kaltetuko. Ugaztunentzat ez da kaltegarria. Ez ditu kaltetzen ere intsektu polinizatzaile eta intsektu harrapariak, hala nola kakalardoak, erlastarrak, erleak eta liztorrak.

Potasio xaboiak intsektuak zuzenean ukituz gero, hezurdura kaltetzen du, intsektuaren heriotza eraginez.

Berezko intsektizida-efektuz gain, landare-zorriek eta kotxinilek jariatzen duten melaza garbitzen du potasio-xaboiak, landareak garbi utziz. Horrela, berriz infektatzeko arriskua murrizten da.

Potasio xaboa intsektizida gisa erabiltzeko, gehienez ere 20 gr xaboi diluitu behar da ur litro bakoitzeko, eta nahasketa lainoztatu izurriteak jotako landareen gainean, ondo bustiz, ahal dela egusentian edo ilunabarrean. Ez da gomendatzen eguzkitan lainoztatzea, landareen hostoei kalte egin baitiezaieke. Halaber, hobe da euri edo haize egunetan tratamendurik ez egitea, produktuaren zati bat desagertuko baita.

Tratamendua 4-5 egunera errepika daiteke.